

EHUNEKOAK

TOTALAREN % E = ZATIA

$$\begin{aligned} \text{ZATIA} &= \text{TOTALA} \cdot \frac{E}{100} \\ \text{TOTALA} &= \text{ZATIA} \cdot \frac{100}{E} \\ \text{EHUNEKOAK (E)} &= \frac{\text{ZATIA}}{\text{TOTALA}} \cdot 100 \end{aligned}$$

1. ARIKETA: Kalkulatu x-ren balioa kasu bakoitzean (soilik jarri emaitza).

a)	50en % 10 = x	x =
b)	72ren % 25 = x	x =
c)	200en % 8 = x	x =
d)	x-ren % 10 = 5	x =
e)	x-ren % 25 = 18	x =
f)	x-ren % 8 = 16	x =
g)	50en % x = 5	x =
h)	72ren % x = 18	x =
i)	200en % x = 16	x =

2. ARIKETA: Erantzun galderak:

GALDERA	%
a) Kutxa batean bola gorriak eta bola berdeak dauzkagu. Gorriak bolen % 15 badira, ehuneko zenbat dira berdeak?	
b) Makina batek produzitzen dituen piezen %1 akastunak dira. Piezen ehuneko zenbatekoa da erabilgarria?	
c) Gela bateko ikasleen %80ak gainditu dute azterketa. Ehuneko zenbatek suspenditu dute azterketa?	

3. ARIKETA: Ebatzi ehuneko problema hauek (laukiak betez):

a) Zuhaitzaren egunerako, 35 landare ditugu. Horietatik %20 akazia dira. Zenbat akazia landare ditugu?

$$\square \text{ en } \% \square = \square \longrightarrow x = \square \cdot \frac{\square}{\square} = \square \text{ AKAZIA LANDARE DITUGU}$$

b) Fruta denda batean, 44 kaxa laranja izaten dituzte lehen orduan. Egunean zehar %75 saltzen badituzte, zenbat kaxa GELDITZEN zaizkie denda ixtean?

$$\square \text{ en } \% \square = \square \longrightarrow x = \square \cdot \frac{\square}{\square} = \square \text{ KAXA GELDITZEN ZAIZKIE}$$

c) Futbol klub bateko 24 fitxa dituz; hau da, fitxa guztien % 20. Zenbat fitxa daude guztira?

$$\square \text{ en } \% \square = \square \longrightarrow x = \square \cdot \frac{\square}{\square} = \square \text{ FITXA DAUDE GUZTIRA}$$

d) Kontzertu baterako salgai zeuden 500 sarreretatik 450 sarrera saldu dira jadanik. Sarreren ehuneko zenbat saldu dira?

$$\square \text{ en } \% \square = \square \longrightarrow x = \frac{\square}{\square} \cdot \square = \square \text{ (SALDUTAKO SARREREN \%)}$$